

EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia (52 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2021eko martxoaren 5ean; Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzailearen 2021eko otsailaren 19ko 372/2021 Ebazpenaren bidez onetsia).

Bigarren probari buruzko oharra

1.-Eguna eta tokia:

Lehenbiziko probaren noten behin betiko zerrendarekin batera ateratako oharrean ageri den bezala, oposizioaren bigarren proba **2022ko urtarrilaren 31n** izanen da, **astelehena, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **ikasgelategiko 328. ikasgelan, Iruñeko Arrosadiko campusean**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaporte edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.-Teorikoa da proba, eta guztira 18,5 puntu daude jokoan. Honela dago osatua:

a) 8 galdera deialdiaren 1. eranskineko 1. parteko gaiei buruz. Mugarik ez badago ere, gomendio gisara aditzera eman nahi dugu gaia orrialde batean garatzekoa dela, gehienez 2 orrialdetan. Galdera bakoitzak 2 puntu balio du.

b) 10 galderako test bat, 1. eranskineko 2. parteko gaiei buruz. 2,5 puntu balio du testak, hau da, 0,25 galdera bakoitzak. Test galderetan egindako okerrek ez dute zigorrik, hots, ez da punturik deskontatuko.

Bazterturik geldituko dira azterketan gutxienez puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak, hots, 9,25.

Dena batera banatuko da, eta, guztira, **hiru ordu izanen dira, 180 minutu**, etenik gabe, izangaia nahi bezala banatzekoak ariketak egiteko.

3.-Probaren ezaugarriak:

Proba ordenagailuan egingen da, word dokumentu batean (zuzentzailea deskonektatua egonen da), Interneteko konexiorik gabe, eta plika sistema erabiliko da zuzenketan. Ezin da hiztegirik eraman probara.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 19an.

Epaimahaiburua eta epaimahaiko kide idazkaria.

Fernando Rey

Patxi Salaberri